



2004-2008 PLAN ESTRATEGIKOA

Donostia Ospitalea

2007-2009 berrikustea

Donostia Ospitaleko Plan Estrategikoa

2004
2008



Berrikustea

2007
2009



Gipuzkoarrentzat



Plan Estrategikoak honako honetan lagundu behar digu:

- Zer izan nahi dugun zehazten.
- Lotura-baliabidea izaten.
- Hobetze-baliabidea izaten.

2004-2008ko Plan Estrategikoa, Donostia Ospitalea euskal osasunaren erreferente garrantzitsu gisa definitzeko orduan eginiko apustu handia izan zen, berezko nortasun-ezaugarriak ezarri, egunero hori ahalbidetzen dutenengan konfiantza edukiz eta gipuzkoarren osasun-arazoak konpontzeko gaitasuna izanez.

Gure konpromiso sendoarekin jarraitzen dugu pazienteen sistemaren erdian kokatzeko orduan, kalitatezko atentzioa eskaintzean, bai eta pertsonak giltzarritzat jotzeko orduan ere. Bultzatze etiko eta solidarioa norabide horretan izandako aurrerapausoaren bermea da.

Planaren bi urteko indarraldiak aukera eman du helburuak eta jardueraren proposamenak ezin hobeki definitutako estrategien inguruan lerrokatzeko. Plana bada, ez da apaingarri hutsa izan; aitzitik, lotura- eta hobetze-baliabidea izan da, adierazleek erakusten duten bezala.

Denbora hori igarota, balantzea egiteko eta edukia berrikusteko garaia iritsi da. Hemen aurkeztu duguna, edukiak eguneratzen dituen lanaren laburpena da.

Hausnarketaren puntu nagusiak azpimarratzekotan, honako hauek aipatu beharko genituzke: **eraginkortasuna arlo asistentzialaren zerbitzura dagoen kudeaketan biltzeko** beharra eta helburu estrategiko berri eta asmo handikoa txertatzea, hots, **profesionalen aitorpena bultzatzea**. Halaber, **Eginkizuna, Ikuspegia eta Balioak** berriro definitzea; eta ekimen estrategiko garrantzitsuak eranstea.

Nabarmendu nahi dugu hausnarketa honetan parte hartu duten profesionalen lana eta lankidetzaz, bereiziki, Batzorde Teknikoaren barruan sortutako batzorde espezifikoak aipatuz. Esker mila guztioi.

ZUZENDARITZA BATZORDEA



Donostia Ospitaleak bere ahalegin estrategikoak helburu hauek lortzera bideratuko ditu:

“Estrategia, giltzarri estrategikoak erdiesteko hasi beharreko ekintzei eta erabili beharreko baliabideei buruzko multzo kontziente, zentzuzko eta koherentea da. Betiere, kanpo-, teknologia-, ekonomia- eta gizarte-aldaketak kontuan hartuz”.

Ezin da noizbehinka egiten den eta plangintza-taldearen asmo onak jasotzen dituen gogoeta hutsa izan. Mekanismo nahikoak ezarri behar ditu **bere hedapena ospitaleko maila guztietan bermatze aldera; hori horrela, eguneroko jarduerak loturik egongo da zuzenean mekanismo horiekin**”.

Asistentzia-eredu berri baten bidez kudeaketa hobetzea: zerbitzu eta produktu jakin batzuk aukeratuz eta definituz; eskaintza berritzailea eta zainketa pertsonalizatuaren bidez, ohiko ospitalizazioaren ordezkari aukerak sustatuko dituzten ekimenak bultzatuz; ikerkuntza indartuz eta erabiltzaileen zerbitzura jarritz eta eskualdeko ospitaleetako sarearekin eta lehen mailako arretarekin integrazioa bultzatuz.

Profesionalen aitorpena bultzatzea, hauxe baita Donostia Ospitalea –gipuzkoarrei erantzun asistentzial onena eskaintzeko asmoa duena– izeneko asmo handiko proiektuaren bermea eta giltzarria.

Arlo asistentzialaren zerbitzura kudeaketa-sistema eraginkorra ezartzea, zerbitzuetako jarduerak zentzuz antolatzen lagunduko duena; informazio-sistemak finkatuko dituen eta horretarako berariazko hobetze-planak garatuko dituen.

Gipuzkoako gizartearen protagonismoa lortzea eta pazienteen oniritzia izatea: betiere, balio partekatuak definituko dituen oinarri etiko eta solidarioarekin eta gipuzkoarrei Donostia Ospitalearekin harro eta **esku onenetan** daudela sentiaraziko dien helburu komunarekin.



Esku onenetan

Gustura eta konprometituta dauden profesionalekin

- **Parte-hartze handiagoa, komunikazio hobea eta autonomia handiagoa daukan Donostia Ospitalean:** estrategiak definituz eta asistentzia-prozesuak eta baliabideak kudeatuz. Deszentralizazioak eta autonomiak ardura handiagoa dakarte eta emandako arreta hobetzeko eta profesionalen pozarako izango da.
- **Lehiakorrak eta berritzaileak izanik,** zentroa produktuen eta zerbitzuen erreferente gisa ezagutzen lagunduko dituzten zenbait zerbitzu garapen-polo gisa bultzatzea, bikaintasun-taldeetan kokatuta dauden profesionalekin.
- **Frogetan Oinarritutako Medikuntza eta Ikerketa Biomedikoa bultzatuko da,** profesionalei, une jakin batean eta paziente zehatz baten kasuan metodo diagnostiko eta tratamendu bakoitza egokienak direla ziurtatzeko beharrezkoak diren tresnak eskainiz.
- Asistentzia-prozesuen berariazko beharrei erantzun eta ekintza mediko, diagnostiko eta terapeutiko desberdinen koordinazioa erraztuko dituzten **Unitate funtzionalak sortu eta bereizmen handiko prozedurak lagunduko dira,** emaitzak modu bizkorrean lortze aldera.
- **Profesionalek lorturiko helburuak eta xedeak aitortzea,** diskriminaziorako gaitasuna, gardentasuna eta konpromisoa sustatuko duen oinarri solidario batekin.
- **Ezagutzaren Arloa sendotu eta instalazio eta ekipamenduak etengabe hobetuko dira,** paziente bakoitzak behar duen banakako erantzuna bermatuko duen praktika eta teknika onenen identifikazio-, jarraipen - eta zabalkunde-sistema ezartzeko asmoz.



Gipuzkoarren zerbitzura

Lehen kontsultatik Zainketa Aringarrietaraino

- **Zainketetan arreta pertsonalizatua eskaintzea,** pazienteen itxaropen hauek kontuan hartuz: tratua, hurbiltasuna, erosotasuna eta asistentzia-prozesu osoaren informazio egokia. Horrek guztiak erabaki terapeutikoetan bere parte-hartzea erraztuko du.
- **Ohiko ospitalizazioaren ordezeko aukerak bultzatuko dira,** zerbitzuak pazienteen beharrei egokitzen saiatuz: **ospitaleko arreta etxean,** arreta **Eguneko Ospitalean** behar den kasuetan, arreta **Egonaldi Laburreko Unitateetan** gehienez ere 5 eguneko ospitaleratzea eskatzen duten interbentzioak egiten direnean.
- **Ospitaleetako sare desberdinen koordinazioa hobetzea,** zirkuituak sinplifikatuz eta Donostia Ospitaleko sarbidea eta ondorengo zainketen jarraipena hobetzeko irizpideak batuz: lehen mailako arretan, egonaldi ertain eta luzean, arreta soziosanitarioan edo zainketa aringarrietan.
- Atenditzen diren **patologia nagusien jarraipen-planarekin,** asistentzia-prozesu nagusien kudeaketa, gure emaitzen ebaluazio sistematikoa –kalitate zientifiko-teknikoari dagokionez–, arriskuen kudeaketa, eraginkortasuna eta gogobetetzea sustatuz eta dinamizatuz, prozesu horien etengabeko hobetzea sistematizatze aldera.
- **Arretan berandutzea eta itxaronzerrendak murriztea,** eskaintza eskariari egokitzen lagunduko duten kudeaketa-sistema malguak ezarri.
- **Arreta elebiduna eta informazioa erraztea,** bai eta seinaleen etengabeko egokitzea ere.





Gure ingurua



Gipuzkoako gizartean kohesioa eta oreka azpimarratzekoak dira. Igarobidea eta bidagurutzia izanik, bertan bizi diren biztanleak Mendebaldeko Europako gizarte aurreratuaren berezko aldatetara egokitu egin zaizkie eta urteetan zehar, nortasun handiko gizarte dinamikoa, erantzuteko gaitasuna duena eta etorkizunerako ahalmen handia izango duena eratuz joan da.

Gipuzkoak, familia-errenta erabilgarriari dagokionez, garapen-maila altua lortu du, estatuko batez bestekotik gorakoa, lurralde garatuenetako bat izanik. (Espainiako batez besteko balioari 100 puntu egokitzen bazaizkio, Gipuzkoari 124 puntutik gorakoa dagokio). Gure lurraldean familia-errenta erabilgarria EAEko balioaren gainetik dago (%0,3).

BPGri dagokionez ere, Espainiako batez bestekoaren gainetik dago (Espainiako batez bestekoa= 100 puntu, Gipuzkoan: 106,3 puntu).

Biztanleak	682.977	
Hedadura	1.980 Km ²	Estatuko txikiena
Udalerrriak	89	48k 2.000 biztanle baino gutxiago eta batek bakarrik 100.000 baino gehiago
1998ko jaiotza-tasa 1.000 biztanleko	8,4	EBko batez bestekoa baino txikiagoa (%10,7)
Egungo zahartze-tasa	18%	EBko batez bestekoa baino handiagoa (%16,3)
2010 eta 2020rako aurreikusitako zahartze-tasak	%20 eta %24	Egun zaharkituago dauden herrien tasa berdintsuak
Familien batez besteko tamaina (1996) 3,1	3,1	
Bakarrik bizi diren 65 urtetik gorakoak	16%	Donostian %20 dira. Europarekiko oso tasa baxuak, baina hazten ari dira. Gehienak emakumeak dira.



- **Eginkizuna, Ikuspegia, Balioak**
- **Arrakastarako Eragile Giltzarriak**
- **Helburu estrategikoak**
- **Plan Operatiboa-Ekimen estrategikoak**

**2004
2008**



Berrikustea

**2007
2009**



Eginkizuna, Ikuspegia, Balioak eta Arrakastarako Faktore Giltzarriak



Eginkizuna

GIPUZKOAN OSASUN-ASISTENTZIARIK ONENA ESKAINTZEA.

Ikuspegia

GURE HELBURUA DONOSTIA OSPITALEAN PERTSONEI ESKU ONENETAN DAUDELA SENTIARAZTEA.

Eginkizuna

"**Eginkizuna** da erakunde baten helburua edo xedea idatziz jasoa. Eginkizunaren idatzizko definizioak langile bakoitzak enpresari egiten dion ekarpenari zentzua ematen dio, lagundu behar duen azken xedea argituz".

Ikuspegia

"**Ikuspegia** etorkizunean erakunderako nahi dugun irudiaren ahozko adierazpena da, eta erakunde horrek orainaldian hartu beharreko norabidea ezartzeko balio du".

Balioak

"**Balioak** erakundearen gogoetak zuzentzen dituzten idealak edo oinarriak dira. Enpresaren jokaera-ardatzak dira".

Balioak



Arrakastarako Eragile Giltzarriak


- Zerbitzu edo produktu jakin batzuk modu selektiboan sustatzea.
- Zainketen pertsonalizazioa bultzatzea.
- Ohiko ospitaleratzearen ordezkio aukerei aurre egitea.
- Profesionalen ezagutza aprobetxatzea erabakiak hartzeko orduan eta kudeaketan.
- Osakidetzaren, pazienteen eta profesionalen aurrean nortasun-ezaugarriak sustatzea.

Zer da nahi duguna?

Etorkizuneko erronkei aurre egin ahal izateko, proiektu honen xede nagusia hauxe da:

- Donostia Ospitalearentzat etorkizunerako aukera estrategiko onenak hautatzea.
- Asistentzia-inguru aldakor baten aurrean, erakundeen posizionamendua hobetzen laguntzea.
- Hasi beharreko ekimenek koherentzia izan dezaten, etorkizun-sena sortzen laguntzea.

GAUR EGUNGOAK



PROPOSAMEN BERRIA

2. HELBURU ESTRATEGIKOA

EREDU ASISTENTZIAL BERRIA BULTZATZEA

- Zerbitzuak eta produktuak identifikatzea eta zabaltzea.
- Ospitalizazioaren ordeko aukerak indartzea.
- Eskaintza pertsonalizatua eta berritzailea.
- Ikerketaren garapena.
- Lehen Mailako Arretarekin koordinatzea.

3. HELBURU ESTRATEGIKOA

KUDEAKETA-SISTEMA ERAGINKORRA EZARTZEA, ARLO ASISTENTZIALAREN ZERBITZURA

- Zerbitzuen jarduera arrazionalizatzea.
- Informazio-sistema egokia.
- Deszentralizazioa / autokudeaketa.
- Teknologia-ri egokitzea.

1. HELBURU ESTRATEGIKOA

DENON ARTEAN, GIZARTEAN INDARRA IRABAZTEA

- Nortasun-ezaugarriak.
- Pazienteen aldetiko aitorpena.
- Profesionalen aldetiko aitorpena.
- Pazienteek eta boluntarioek parte hartzeko foroa.

Eginkizuna
Ikuspegia
Balioak

4. HELBURU ESTRATEGIKOA

PROFESIONALEN AITORPENA INDARTZEA

- Profesionala atenditzeko unitatea.
- Kudeaketa-eredu berria erizaintzan.
- Prestakuntzako plan orokorra.
- Garapen profesionala.

BERRIA


HELBURU ESTRATEGIKOAK

Helburu estrategikoa

Ekimen estrategikoa

Helburu estrategikoa

Ekimen estrategikoa



- | | |
|--|--|
| 1.1. Kudeaketa klinikoko unitateak sustatzea. | 1.1. Profesionala Atenditzeko Unitatea abian jartzea. |
| 1.2. Ikerketaren Plan Estrategikoa. | 4.2. Erreta dagoen profesionala detektatzeko eta aukerak emateko Plana. |
| 1.3. Donostia Ospitaleko Kanpo-komunikazioko Plana martxan jartzea. | 4.3. Profesionalentzako "Informazioa eta harremana"ri buruzko prestakuntza espezifikoa. |
| 1.4. Euskara-plana garatzea. | 4.4. Hobetze-taldeak martxan jartzea. |
| 1.5. "Arreta-eredua" ezartzea kanpo-konsultetan espezialitateen arabera. | 4.5. Erizaintzan kudeaketa-eredu berria definitzea. |
| 1.6. Zerbitzu jakin batzuen hedatze hautatua. | 4.6. Prestakuntzako, Irakaskuntzako eta Liburutegiko Plan Orokorra. |
| 1.7. Pazienteei eta boluntarioei parte hartzeko organoa —foroa— martxan jartzea. | 4.7. Garapen Profesionaleko Proiektua implementatzea eta hobetzea. |
| 1.8. Urteko Hobetze-plana, bezeroen emaitzen arabera. | |
| 2.1. Arreta urgentearen protokolozazioa/kudeaketa: Etegabeko Arretaren eredu . | 3.1. Helburuak zerbitzuka hedatzeko plana. |
| 2.2. Frogetan Oinarritutako Medikuntza beste zerbitzu batzuetara zabaltzea. | 3.2. Donostia Ospitaleko Prozesuen Mapa ezartzea. |
| 2.3. Bereizmen Handiko Prozeduren garapena laguntzea: ospitaleko eremuan. | 3.3. Laneko arriskuen kudeaketa. |
| 2.4. Lehen Mailako Asistentzia eta Espezializatua koordinatzeko plana. | 3.4. Donostia Ospitaleko Emergentzia-plana. |
| 2.5. Ospitalizazioaren ordezkotzako aukerak: Etxeko Ospitalizazioko asistentzia-modalitatean Prozesu Giltzarriak definituz. | 3.5. Espazioen Plan funtzionala. |
| 2.6. Ospitalizazioaren ordezkotzako aukerak: Eguneko Ospitale Mediko Kirurgikoko asistentzia-modalitatean Prozesu Giltzarriak definituz. | 3.6. Arlo Asistentzialari/Klinikoari egokituak informazio-sistemak. |
| 2.7. Ospitalizazioaren ordezkotzako aukerak: Zerbitzu kirurgikoetan Kirurgia Anbulatorioko prozesuak indartz. | 3.7. Arlo Asistentzialaren zerbitzura dauden Pertsonaleko politikak berrituz bideratzea. |
| 2.8. Ospitalizazioko Hobetze-plana. | 3.8. Baliabide diagnostiko eta terapeutikoen egokitze teknologikoa: Ekipamenduen Plana. |
| 2.9. Erizaintzako Arreta-prozesua eguneratzea Ospitalizazioko unitateetan. | 3.9. Hondakinen Plana eta 14000 ISO ziurtagiria (Ingurumena). |



Ildo estrategikoak

2004
2008



Berrikustea

2007
2009

KUDEAKETA KLINIKOKO UNITATEAK SUSTATZEA

Kudeaketa-eredu berriak aplikatu nahi dira, profesionalei erantzukizun zuzena egotziz eta aldi berean, arreta integrala eskainiz. Pazientea sistemaren ardatz gisa hartuta, erakundea deszentralizatu nahi da, klinikoak erabakiak hartzeko orduan pixkanaka inplikatur. Prozesua dinamikoa da, eta aldaketaren eta etengabeko hobetzearen aldeko apustua egitea ekarriko du.

Beraz, pazienteak gunetzat hartzen duen eta profesionalen eguneroko jarduerak erraztu nahi duen proiektu asistentziala da.

IKERKETAREN PLAN ESTRATEGIKOA



Donostia Ospitalearen helburuetako bat kalitatezko ikerketa egitea da, hau da, horren emaitzak pazientearen osasuna mantentzen eta bere tratamenduan lagundu behar dute. Arlo honetan egiten diren jarduerak desberdinak artikulatzeko ardura bere gain hartzen du, eta ikerketaren eta berrikuntzaren erreferentzia izateko asmoa du. Horretarako, hiru ardatz estrategiko definitzen ditu: ikerketa laguntzeko egiturak hobetzea, egungo ikerketa-lerroak haztea eta egokitzea eta bolumena eta berrikuntza haztera zuzendutako itunak sortzea.

Dagoeneko eginda dagoen ikerketaren Plan Estrategikoaren garapenak, arlo honetako gaitasun desberdinen garapena ahalbidetuko duen aldaketa kualitatiboa ekarri behar du, betiere pazientearekiko arretarik onenaren zerbitzura.

KOMUNIKAZIO-PLANA

Gizartean protagonismoa eta profesionalen eta pazienteen aitorpena irabazte aldera, komunikazio-plan orokor baten garapena bultzatu da, ospitaletik kanpora zein ospitale barruan. Plana, ezin hobeki diseinatutako eta planifikatutako ekintzekin, gipuzkoarrei arretarik onena emateko zerbitzura dauden profesionalen eguneroko jardueraren berri emateko elementu garrantzitsu bihurtu da.



2006. urtetik aurrera, Planak, egindako lanari eskainitako aitorpenak jasotzen ditu, besteak beste, lan profesional onena aitortzeko saria, ospitalean euskararen erabilera sustatzeko ekimen onenarentzako saria, edo, 2007. urtean, mediku egoiliar onenarentzako saria.

EUSKARA-PLANAREN GARAPENA

Donostia Ospitaleko Euskararen erabilera normalizatzeko plana 2006ko apirilean onartu zen, eta bere helburu orokorra biztanleen hizkuntza-eskubideen babesean aurreratzeaz gain, komunikazioaren kalitatea eta pazientearekiko enpatia hobetzea da, eskaintza asistentzial ezin hobearen elementu giltzarri gisa.



Hurrengo 6 urteetan indarrean egongo den Plan honek helburu, epe eta hartu beharreko neurriak jasotzen ditu. Horien jarraipena eta ebaluazioa etengabeak izango dira.

KANPO-KONTSULTETAKO ARRETA-EREDUA ESPEZIALITATEEN ARABERA

Kanpo-kontsultak arreta espezializatuan Osakidetzak biztanleekin duen harremanik ohikoena izaten dira. 2006. urtean, Donostia Ospitalean 675.671 kontsulta izan ziren. Arreta anbulatorio arinagoa eskaini izan den heinean, eskaera ia proportzio berean igo da. Ospitalizaziorako joerak zenbait prozesutan beheraka egin du eta, izan ere, hori guztia saihestu daiteke arreta anbulatorioa eraginkorra eta kalitatezkoa den neurrian.

Eskaintako arretaren erabilerraztasun-helburuak eta kalitatea lortze aldera, irtenbideetako bat erakundearen zenbait alderdi aldatzea da; kasu honetan, jarduera berriz antolatzea erizaintzako kontsultak garatuz.

ZENBAIT ZERBITZUREN HEDATZE SELEKTIBOA



Medikuen eta erizainen zainketak profil jakin batzuk dituzten pazienteei egokitzeko asmoz, Susperraldiko eta Errehabilitazioko Unitate Funtzionala sortu da. Beraz, Egonaldi Ertaineko Unitatea eratu da. Unitate honek, ikuspuntu funtzionaletik Errehabilitazio Zerbitzuko eta Barne-medikuntzako langileak hartzen ditu.

Funtsean, helburua honelako ezaugarri hauek dituzten pazienteei arreta ematea da: susperraldian daudenak, egonkorrak, helburu kliniko lorgarria dutenak, pluripatologia dutenak, gaixotasun kronikoak, autonomia mugatua eta beren erabateko suspertzea lortzeko gainbegiratze medikoaren eta erizaintzako langileen laguntza garrantzitsuen beharra dutenak.

PAZIENTEEN ETA BOLUNTARIOEN FOROA

Batzorde Teknikoak sustatutako hausnarketa estrategikoaren barruan, 2007ko bigarren hiruhilekoan organo hori jarriko da martxan; bertan, ospitaleko profesionalez gain, boluntarioek, pazienteek eta zuzendaritzak hartuko dute parte.

Foro honen xedea ikuspuntu desberdinen bilgunea izatea da eta arreta hobetzeko eta profesionalen aitorpena bultzatzeko neurriak hartzea ahalbidetuko du.



URTEKO HOBETZE-PLANA, BEZEROEN EMAITZEN ARABERA

Osakidetza Plan Estrategikoak erakundeko helburuen artean honakoak ezartzen ditu: "Erabateko kalitatea" eta "Zerbitzua bezeroari / pazienteari".

Azken urteotan zenbait osasun-zentrotako bezeroei inkestak egin zaizkie honako arloetan jasotako arretari buruzko gogobetetze-maila ezagutzearen: harremana, jasotako informazioa, balorazio teknikoa, ostalaritza, koordinazioa, emaitzak eta balorazio orokorra. Emaidza hauek, Pazientea Atenditzeko Zerbitzuak hileroko egiten dituen txostenekin batera, laguntzen digute ospitalean izatean jaso duten arretari buruzko informazio aipagarria lortzen. Informazio honekin guztiarekin hobetzeko arloak antzematen dira eta hobetze-ekintzak antolatzen dira pazientei arretarik onena bermatzeko.

ARRETA URGENTEAREN PROTOKOLIZAZIOA / KUDEAKETA: ETENGABEKO ARRETA-EREDUA

Pazienteentzako eta profesionalentzako etengabeko arreta-eredu koherente eta ona lortzea kudeaketa-helburu ezinbestekoa da: zerbitzu-kalitatea eta profesionalaren erosotasuna.

Lankidetzaren eta konpromisoaren nahitaezkoak direla kontuan izanik, eskura dauden baliabideen azterketa zehatza egiten ari da, eta aldi berean, ospitaleko egiturak baldintzatzen duen eta ekonomikoki bideragarria den eredu malgutik, eraginkortasunaren eta eskaeraren arabera neurriak bilatzen ari dira.

Azken finean, arreta orokorra bermatzeko duen eta profesionaltasuna bultzatzeko duen kalitatezko asistentzia urgentea.

FROGETAN OINARRITUTAKO MEDIKUNTZAKO BESTE ZERBITZUETARA ZABALTZEA

Osasun-arloan ezagutzaren gehikuntza nabarmena da, egunero 3.000 artikulua berri sortzen dira; horietatik 1.000 medline-ren bidez berreskuratu daitezke eta, gutxienez, 46 saiakuntza kliniko randomizatuak dira.

Frogetan edo ebidentzian oinarritutako medikuntza, egoera klinikoei aurre egiteko modua da, horretarako ikerketa zientifikoan sortutako emaitzak erabiliz. Hau da, “eskura dauden proba onenen erabilera arretatsua, zentzuduna eta esplizitua da, pazienteak zaintzeari buruz hartu beharreko erabakietan”.

Gure asmoa Ospitaleko FOMko Unitatea (4.a-2.a) sendotzea eta bere praktika pixkanaka beste unitate batzuetara hedatzea da, esaterako, Barne-medikuntza, Larrialdiak, Etxeko Ospitalizazioa,... FOM bultzatzeak ikerketa-, asistentzia- irakaskuntza- eta zabalkunde-lanak eskatzen ditu estamentu-, zerbitzu- eta arreta-maila desberdinetan.

Ebidentzian oinarritutako osasun-arretan garapenaren eta berrikuntzaren erreferentea izan nahi dugu, osasun-asistentziarik onena ziurtatuz.

BEREIZMEN HANDIKO PROZEDUREN GARAPENA LAGUNTZEA

a) Arreta azkarreko zirkuituak diseinatuz eta ezarriz, denbora-faktoreak prozesu asistentzialaren azken emaitzetan garrantzi handia izan dezakeen prozesu klinikoetarako.

- 1) Diagnostiko-zirkuituak eta tratamendua bularreko, birikietako, koloneko eta maskuriko minbizian.
- 2) Gongoil-biopsien zirkuitua.



b) Halaber, prozesu asistentzialaren zatirik handiena modu anbulatorioan eta azkarrean atenditzen lagunduko duten zirkuituak ezarri nahi dira.

- 1) Bereizmen handiko honako kontsulta hauek: Kardiologia, Neurologia, Digestiboa, Pneumologia eta Barne-medikuntza.

Honek guztiak kostua aurrezteko ekarriko du, diagnostikorako egokiak ez diren egonaldiak saihestuz, eta altak eta kontsulta espezifikoei jarraipena egitea erraztuz.

LEHEN MAILAKO ASISTENTZIA ESPEZIALIZATUAREN KOORDINAZIO-PLANA

Erronka, gaixoaren ikuspegi orokorra berreskuratzeko ezinbesteko beharra da, pazientea, maila desberdinetan egiteko moduko beharrak dituen biografia bakar gisa hartuz. Helburu hori erdiesteko irizpide integratzailea izan behar da; Lehen Mailako Arreta eta Arreta Espezializatuaren artean erabakiak garatuz, eta, beste ekintzen artean, medikuen kontsultartekoa sustatuz.

Maila asistentzialen arteko integrazioak, zerbitzuen –bere ardurapean duten biztanleen jarraipen asistentziala ematen dutenak– sare koordinatzaile gisa ulerturik, abantaila sanitario handiak eskaintzen ditu.

Integrazio honek bi mailen arteko egungo jarraipenik eza arindu dezake. Azken finean, egoera kliniko bakoitza lekurik egokienean trataturik izan dadin.

OSPITALIZAZIOAREN ORDEZKO AUKERAK: ETXEKO OSPITALIZAZIOKO ASISTENTZIA-MODALITATEAN PROZESU GILTZARRIAK DEFINITUZ

Helburua ospitalea pazientearen etxera hurbiltzea da. Honek jarraipena ematen die erizaintzako langileen eta medikuen zainketei, alta goiztiarrak ematen edo ingresuak saihesten ahalbidetuz. Halaber, erosotasuna eskainiko dio pazienteari eta gastua murriztu egingo da.



Pixkanaka, zerbitzuen eskaintza handitu egin da, eta horren ondorioz, ospitaleko laguntzarekin beren etxeetan hiltzen diren pazienteen kopurua handitu egin da.

Lehen Mailako Arretarekin koordinaturik, zerbitzu hori patologia kronikoa eta prozesua berriro areagotu egin zaien pazienteek erabiltzen dute ingresua saihestuz.



OSPITALIZAZIOAREN ORDEZKO AUKERAK: EGUNEKO OSPITALE MEDIKO KIRURGIKOKO ASISTENTZIA-MODALITATEAN PROZESU GILTZARRIAK DEFINITUZ

Ama-haurrentzako eraikinean Eguneko Ospitale Kirurgiko Pediatrikoa berrantolatzen ari da, eta, aldi berean, Eguneko Ospitale Kirurgiko Pediatrikoaren prozesuak definitzen ari dira espazio berdinean gaur egun modu sakabanatuan egiten diren jarduerak bateratze aldera.



Ospitalizazioko unitateak irekitzeak (egun obretan) eta Larrialdietako Bloke Kirurgiko berriaren proiektuaren hasierak Arantzazu eraikineko Eguneko Ospitale Kirurgikoa –kokapena eta neurriak– berrantolatzeko beharra planteatzen dute; Kirurgia Handi Anbulatorioko (KHA) jardueretan zerbitzu eta prozesu gehiago txertatuz.

OSPITALIZAZIOAREN ORDEZKO AUKERAK: ZERBITZU KIRURGIKOETAN KHA-KO PROZESUAK BULTZATUZ



Aurten, Kirurgia Orokorrean eta Digestiboan Kirurgia Handi Anbulatorioa diseinatu eta hasi ondoren, sendotu egin nahi da ekipo gehiago jarritz, prozesu gehiago protokolizatzuz eta Lartzabalgo anbulatorioan kanpo-konsulta irekiz.

Traumatologia Zerbitzuan Eguneko Ospitalean artatu daitezkeen prozesuak adostu dira, aurtengo helburua Kirurgia Handi Anbulatorioko dokumentazioa egitea izanik, besteak beste, informazio-orriak, operazio ondoko zainketak, etab.

Urologia Zerbitzuan helburua hauxe da: Eguneko Ospitale Kirurgikoan egindako jarduerak Kirurgia Orokorrean erabilitako diseinu berdintsua izango duen Kirurgia Handi Anbulatorioko prozesu batera “migratzea” da.

HOBETZE-PLANA OSPITALIZAZIOAN



Ospitalizazioko prozesuak bertan parte hartzen duten profesional guztien koordinazioa eskatzen du. Erizaintzako profesionalak egiten dituzten jarduerak definituta dituzte, bai eta Erizaintzako Arreta Prozesuan (EAP) jasota gelditzen den ebaluazio-sistema ere. Hori guztia, ospitaleratutako pazienteak artatzeko prozesua orokorrean txertatuz eta jarduera medikoekin koordinazioa sistematizatuz.

Erizaintzako Arreta Prozesuak erizaintzak, pazienteak unitatean ingresatzen denetik harik eta alta jaso arte egiten dituen jarduerak definitzen ditu: Harrera, Balorazioa, Zainketa-plana, Zainketak aplikatzea eta behar izanez gero, Zainketen jarraipena.

Urtero, prozesuaren barne- eta kanpo-ebaluazioa egiten da egitura-, prozesu- eta emaitza-irizpideen arabera. Ebaluazio honek laguntzen du modu orokorrean, arlo bikainak eta hobetu beharrekoak ezagutzen. Behin hobetze-arloak antzemanaz gero, Hobetze-plana ezartzen da Ospitalizazioan Zainketen planen, Harrerako protokoloen, Tekniken, etabarren berraztertzea barne hartuz.

ERIZAINZAKO ARRETA PROZESUA EGUNERATZEA OSPITALIZAZIOKO UNITATEETAN

Erizaintzako Arreta Prozesuak (EAPk) erizainak, pazienteak unitatean ingresatzen denetik harik eta alta jaso arte egiten dituen azpiprozesuak definitzen ditu: Harrera, Balorazioa, Zainketa-plana, Zainketak aplikatzea eta Ebaluazioa. Prozesuak ZAINERI izeneko programa du euskarri informatikoan. Programa honetan erizainak egiten dituen jarduera guztiak jasotzen dira, eta gure prozeduren eskuliburuko protokolo eta prozesu gehienen Zainketa Estandarizatuen Planak daude txertatuta.



ZAINERi programa hobetze aldera, Zainketetan adituak diren profesionalak osatutako talde batek zenbait hobetze proposatu dituzte eta horrek ekarriko du 2007an zainketen plan guztiek eredu berriari egokitu beharra; izan ere, azken helburua erizainen zainketen kalitatea hobetzea da.

HELBURUAK ZERBITZUKA / UNITATEKA HEDATZEKO PLANA


Plan Estrategikoak, Kalitatearen Planak eta Kontratu-programak definitutako esparruan, ahalegin handia egin da kudeaketa-arloan, gure ospitalearen izaera berritzailea ezarriko duten helburu asistentzialak azaltzeko eta definitzeko.

Zerbitzu guztien eta bakoitzaren helburuak alderdi hauen arabera egin dira: beren diseinu funtzionala, asistentzia-prozesuen protokolizazioa, pazienteen zainketak planifikatzea, baliabideak kudeatzea eta autoebaluazio klinikoak.

DONOSTIA OSPITALEKO PROZESU-MAPA EZARTZEA

EFQM eredua etengabe hobetzeko tresna egitaratu gisa erabiliz, helburua Donostia Ospitaleko kudeaketa prozesuetara bideratzea da.

Ekimen estrategiko honen xedea prozesuen kudeaketaren metodologia erakunde osora hedatzea da prozesu-maparen bidez, horietako bakoitzari jabe bana esleituz. Jabe hori, prozesuaren jarduerak betetzen dituzten pertsonak osatutako talde batekin lankidetzan, honakoak definitzeaz arduratuko da: eginkizuna, bezeroak eta hornitzaileak, jarduerak eta lanak bai eta horren bilakaera neurtzen lagunduko duten adierazleak ere.



LANEKO ARRISKUAK PREBENITZEKO KUDEAKETA


Prebentzioko Oinarrizko Unitatea enpresan Laneko Arriskuak Prebenitzeko kudeaketan erreferentziako unitate gisa finkatu da. Hori horrela, egitarau bat ezarri da eta horren arabera, 2007ko ekitaldiaren bukaeran Donostia Ospitaleko lanpostu guztien eta bakoitzaren laneko arrisku guztien analisisia amaituta egongo da.

Lan honek txosten teknikoetan adierazitako neurriak martxa jartzea eta jarraipena egitea eskatzen du; hori horrela, kudeaketa-sistema berria jarri da, une bakoitzean egoeraren jarraipen eraginkorragoa ahalbidetuko duena.

ESPAZIOEN PLAN FUNTZIONALA

Epe ertainera, helburua ospitalearen definizioan eta osaeran aurreratzea da; izan ere, obrei, lekualdatzei, etabarrei buruzko hurrengo ekimenak bideratzen lagunduko du.

Zerbitzuek egiaztatu eta beren ekarpenak jaso dituen Plana honako premisa hauetan oinarritu da:



- Ahal den guztietan, kontsultetako lokal guztiak arlo jakinetan elkartzea: Medikoa eta Kirurgikoa.
- Pazienteen sarbidea erraztea, sarrera- eta zirkuitu-kopuruak ahal den gehien murriztuz.
- Arreta integrala arlo espezifikoei definitzea espezialitateen arabera, eta Unitate Asistentzialen funtzionaltasuna eraginkorra egitea.
- Zerbitzuak emateko diseinu egokia egitea.
- Pazienteen eta profesionalen erosotasuna bilatzea.
- Egitura asistentzialak dimentsionatzea.
- Biztanleentzat erakargarri egitea.

ARLO ASISTENTZIALAREN ZERBITZURA DAUDEN PERTSONALEKO POLITIKAK BERRIRO BIDERATzea

Ekimen honen helburua Osakidetzako erakunde osorako onartutako pertsonaleko politikak errealitatera eta gure erakundearen kudeaketara hurbiltzea da; modu horretan, gure erdi mailako kargudunen giza baliabideen lana erraztuz. Deszentralizaziorako eta funtzionamenduan autonomia handiagorako bidean, pazientei asistentzia-kalitate handiena eskaini nahian eta gure profesionalen lidergo klinikoa sendotuz.

BALIABIDE DIAGNOSTIKO ETA TERAPEUTIKOEN EGOKITZE TEKNOLOGIKOA - EKIPAMENDUEN PLANA

Batzorde bat osatuko da ospitaleko zuzendaritzari egokitze teknologikoaren arloan aholkularitza emango diona.

Lortu beharreko helburuak hauexek izango dira:

- Ospitalean erabiltzen diren baliabideak eta prozedura teknikoak ezagutzea, bai eta beren erabilera-maila, behar asistentzialarekiko egokitzapena eta bere etekina ere .
- Baliabide teknologikoen kopuruaren gaineko lehentasunak ezartzea, ospitaleko eskaera asistentzian oinarrituz.

HONDAKINEN PLANA ETA 14000 ISO ZIURTAGIRIA (INGURUMENA)

Donostia Ospitaleko Hondakinak Kudeatzeko Planaren helburua kudeaketa hobetzea da martxoaren 26ko 76/2002 Dekretuak ezarritako oinarrizko irizpideei jarraituz, osasun publikoa eta ingurumena babesteko baliabide guztiak jartzen saiatuz, eta osasuna, ingurumena eta laneko arriskuen babesa zaintzeko ezarritako konpromisoak eta erantzukizunak betez.

Plan honen asmoa hauxe da: manipulatzeko-, banantzeko-, ontziratze-, biltegitratze-, jasotze-, barne-garraioko eta hondakinak azken ezabatze-prozesuan –horren kudeaketa baimendutako enpresek egiten dute– behatu behar diren alderdiak ezagutarazteko gida izatea. 14000 ISO ziurtagiria eskuratzeko aurretiko lanak eta bere ondorengo jarraipenak lagungarriak izango dira Hondakinak Kudeaketari forma emateko eta kokatzeko, helburu-plan bat eta bere adierazleak eginez, arazoaren presentzia handiagoa eta koordinazio hobea izatera behartuz.

PROFESIONALA ATENDITZEKO UNITATEA ABIAN JARTZEA

Profesionala Atenditzeko Unitate berria uda ostean jarriko da martxan. Bere helburu nagusia *banakoari egokitutako arreta elebiduna* garatzea; izan ere, unitate berriak profesionalen beharren eta eskaeren ikuspegi indibidualizatuagoa izateko, eta ospitale handi baten konplexutasunaren barruan azaldutako gaiei gertutik eta berehala erantzuteko aukera emango du.



“ERRETA DAGOEN PROFESIONALA” DETEKTATZEKO PLANA ETA AUKERAK

Asmoa mota horretako egoerak antzematen eta sortutako arazoei irtenbideak ematen lagunduko duen plana egitea da.

Iazko irailean egindako Profesionalen Gogobetetze-inkestak erakutsi du Ospitalearen batez bestekoa baino baxuagoa den gogobetetze-maila duten bi profesional-talde daudela. Hori horrela, gogobetetze-inkestaren emaitzak aztertze- eta hobetze-proposamenak egiteko antolaturiko taldeen artean bi talde horiek sartu dira gertatzen ari diren arazoak aztertze- eta horiei irtenbideak emateko.

PRESTAKUNTZA HARREMANEAN ETA KOMUNIKAZIOAN

Gutxi dira harremanean komunikazioari eta enpatiari garrantzia ematen dioten sektoreak. Kontuan izan behar da, oro har, ematen diren egoeretan pazientearen segurtasunik eza eta beldurra nabarmenak direla. Horrezaz gain, zenbait kasutan, asistentzia-zamak profesionalengan sortarazten duen estresa gehitu behar da. Egoera horien ondorioz sor daitekeen kontrolik ezak une erabat desatseginak ekarriko ditu.



Egoera horiek prebenitze aldera, "komunikazio eta harremana"ri buruzko ikastaro bereziak eskainiko dira egoera-mota horretan inplikaturik dauden profesionalentzat. Horren ostean, esperientzia ebaluatu egingo da eta aurretik zeuden datuekin alderatuko da esperientzia zabaltzeko dagozkion erabakiak hartzeko.

HOBETZE-TALDEAK MARTXAN JARTZEA

Gogobetetze-inkesten emaitzak aztertzeko 7 hobetze-talde jarriko dira martxan talde profesionalen arabera. Talde horiek inkestak hartu zituen arloak aztertuko dituzte eta hobetze-ekintzak proposatuko dituzte Zuzendaritza Batzordera bidaltzeko eta horrek onar ditzan.



ERIZAINZAKO KUDEAKETA-EREDU BERRIA DEFINITZEA

2006. urtean, Batzorde Teknikoa osatzen duten erizainek egungo eredua, Erizaintzako eredu berrirantz aldatzeko beharra mahaigaineratu zuten arlo honetan gaur egun antzematen diren arazoei erantzun ahal izateko. Hauek dira bereiziki aipatzen diren arazoak: erabakiak hartzeko garaian parte-hartzerik eza, informazioaren transmisioa, funtzioak berriz definitzeko beharrak, baliabide-eskasia, etab.



2006ko azaroan, talde bat osatu zen eredu berria definitzeko eta 2007an, behin eredua definituz gero, ezarritako kronogramaren arabera martxan jartzea proposatzen da. Horrek guztiak asistentzia hobetzea eta kolidergo-erantzukizunak –kudeaketan inplikazio handiarekin– hartzea ekarriko du; aldi berean, antzemandako beharrei erantzuna emango zaie.

PRESTAKUNTZAKO, IRAKASKUNTZAKO ETA LIBURUTEGIKO PLAN OROKORRA

Ezagutzaren kudeaketa Zuzendaritza Estrategikoko modu berria da erakunde baten barruan eta sorkuntzaren bultzadan eta ezagutzaren transferentzian oinarritzen da, bertan lan egiten duten pertsonen adimen kapitala baliabide nagusitzat hartuz.

Halaber, erakundeari balioa emango dion eta garapen profesionala sustatuko duen ezagutzaren trukea eta sortzea bermatzeko ekimenak bultzatuko ditu.

GARAPEN PROFESIONALEKO PROIEKTUA INPLEMENTATZEA ETA HOBETZEA

Aurten langile fakultatibo sanitarioen I. eta II. mailako garapen profesionala aitortzeko 2. deialdiari emango zaio hasiera.

Halaber, langile diplomadun sanitarioen garapen profesionala aitortzeko araudia onartuko da, eta, hasteko 1. deialdiari ekingo zaio.

	2004	2006
OSPITALIZAZIOA		
Altak	48.578	50.378
Egonaldia	367.883	346.808
Batez besteko egonaldia	7,57	6,88
Hilkortasun-tasa	3,45	3,28
KIRURGIA		
Ebakuntzak guztira	27.687	31.543
Kirurgia Handi Anbulatorioko tasa	39,26	41,43
Operazio aurreko batez besteko egonaldia	0,92	0,81
Erabilera kirurgiko programatua	79,9	81,77
KONTSULTAK GUZTIRA	661.673	675.671
LARRIALDIAK		
Larrialdiak guztira	143.748	144.713
Ospitaleratutako larrialdiak (%)	20,37	20,1
ERDITZEAK		
Guztira	4.396	4.424
Zesareak %	18,22	12,3

	2004	2006
ETXEKO OSPITALIZAZIOA		
Ospitaleratzeak	762	1.061
Batez besteko egonaldia	18,71	15,55
Baloratutako kontsulta-orriak	840	1.158
EGUNEKO OSPITALE KIRURGIKOA		
Kirurgia Handiko ebakuntzak	4.932	5.619
Ospitaleko lekualdatzeak %	6,36	4,52
Bertan behera uzteak	147	84
Batez besteko egonaldia ordutan	7,11	6
EGUNEKO OSPITALE MEDIKOA		
Egindako prozedurak	22.376	23.955
Batez besteko egonaldia ordutan	2,93	3,52

DONOSTIA OSPITALEKO DATU EKONOMIKOAK

	2004	2006
OSPITALERATZEAK	245.510.016	288.329.734
Kontratu-programaren bidez	238.379.788	283.144.536
Beste batzuei fakturatakoak	4.342.453	3.966.207
Bestelakoak	2.787.775	1.218.991
Gastuak	246.000.026	287.125.736
Langileak	165.967.344	192.787.587
Funtzionamendu-gastuak	77.864.875	93.922.280
Bestelakoak	2.167.807	415.869
EMAITZA	-490.010	1.203.998
INBERTSIOAK	5.640.931	10.966.764



